

Klikatu lotura ikusi eta hausnartzeko:

<https://www.youtube.com/watch?v=phErjwWmG0s>



HITZ EGITEKO



Hizkuntza transmisioa
Jasotakoa eman

MINTZALAGUNA, informazioa:

943 65 50 04 Nafarroa etorbidea 6 koordinatzailea@galtzaundi.com



Zer egin seme-alabei euskara transmititzeko?

Hizkuntzari dagokionean, zure seme-alabak bi eredu izango ditu nagusi: haur eskolako hezitzaileena eta gurasoona. Euskarazko hezitzaileen eta heziketaren hautua egin duzu zuk, garrantzitsua iruditu zaizulako, eta izan ere halaxe delako. Etxean, berriz, eredu bat baino gehiago izan ditzake... eta agian kezka batzuk ere izan ditzakezu etxeko ereduaren inguruan. Eskuorri honetan zuretzako baliagarriak izan daitezkeen aholku eta gogoetagai batzuk planteatu dizkizugu.

Guraso euskaldunak

- 1- Euskaraz egin bikotekidearekin.
- 2- Seme-alabekin euskaraz hitz egin. Ahal dela, senitartekoen eta zaintzaileen arloa ere zaindu.
- 3- Hitz egin zure etxeko euskararen.
- 4- Euskaraz egizu euskaraz ulertzen duten gainerako gurasoekin, nahiz eta oraindik haiek ez izan zurekin euskaraz egiteko gaitasun nahikorik. Haiei laguntzeko modurik egokiena izan liteke.
- 5- Seme-alaben eskolaz kanpoko ekintzak euskaraz izan daitezen arduratu.



Mintzalaguna

- 1.- Euskara praktikatzeko beharra dutenei laguntzea helburu duen egitasmoa da Mintzalaguna. Egitasmo honen bidez, hamarnaka lagun euskara praktikatzen ari dira.
- 2.- Lau-bost pertsonetako taldeetan elkartzen dira: kultur etxean, kafetegian...
- 3.- Astean ordubetez.
- 4.- Pertsona horietariko bat euskalduna izan ohi da. Bere zeregina, besteek esandakoa berak, naturaltasunez, nola esango lukeen esatea izaten da.
- 5.- Euskara praktikatzen dutenei lagunduz, lagun berriak egin, elkarrengandik ikasi... egiten da.

Euskara praktikatzeko beharra dutenei eskua luzatuz, lagun berriak egiteko prest?